



Bilboko  
Elizbarrutia  
DIÓCESIS DE BILBAO

**GURE AITA**

**ERANSKINA**

**ERAGILE, KATEKISTA AMA ETA AITENTZAT**

Delegación de Anuncio y Catequesis  
Fede- Zabalkunde eta Katekesirako Ordezkaritza

## Otoitzerako sarbidea <sup>1</sup>

Katekesia ona izan dadin, bereziki zaindu behar du haurren bakarkako eta taldeko otoitza. Fedea ez da doktrina bat helazariz, gai batzuk azalduz, taldeko dinamika batzuk garatuz edo kristau konpromisorako deia eginez bakarrik esnatzen. Otoitzak eta Jainkoarekiko topaketak pizten eta sendotzen du. Horregatik, egiazko otoitzerako sarbidea eskaini behar diegu hurrei.

Argi eta garbi ikusi behar dugu, hurrei otoitz egiten irakasteko erarik onena eurekin otoitz egitea dela, "otoitz egiten otoitz eginez ikasten" delako. Haurrak bere ondoan otoitz egiten ikusi behar gaitu. Otoitzean ikusten bagaituzte: isiltasunean nor beraren baitan bildu, begiak itxi, apaltasunez hitz egin, Ebanjelioa astiro-astiro irakurri... haurra momentu hauen garrantziaz jabetzen da, Jainkoaren presentzia gauza ontzat hartzen du, bere kontzientzian grabatuta gelditzen diren erlijio hizkuntza eta zeinuak bereganatzen ditu.

Horretarako, beharbada geure otoitzaren kalitatea hobetu beharko dugu eta otoitzari buruzko ideia erraz eta oinarrizkoak argitu. Gai hau katekesiko haurren gurasoekiko bileretan ere aurkeztu behar dugu, ezinbestekoa da-eta beren eskuhartzea etxean, bertan sakondu behar dutelako hurrek euren sarbideko otoitz esperientzia.

## Sarbiderako argibideak

### 1. Otoitza Jainkoarekiko adiskidetasunezko topaketa eta esperientzia

Ezinbestekoa da otoitza Jainkoarekiko adiskidetasunezko topaketa pertsonal bezala sentitzea eta bizitzea. Hau da otoitzerako sarbidean ikusarazi behar dugun esperientzia nagusia.

Otoitz egitea, azken baten, Jainkoa maitatzea eta Berak maite gaituela jakitea da. Garrantzitsua da Jainkoari maitasunez "begiratzen" ikastea eta Berak maitasunez "begiratzen" gaituela jakitea.

Jesusek berak irakatsi digu Jainkoari Aita bezala erregutzen, seme-alaben konfiantzarekin. Hari "Jesusen izenean", Semearen izenean, zuzentzen gatzaiakio, Berarengan agertzeraren ematen zaigu-eta Aita on eta hurko bezala.

### 2. Barne-bilketa eta isiltasuna

Otoitzean Jainkoarengana zabaltzeko, bere presentziaz jabetu behar dugu. Presentzia horrek konfiantza sortzen du guregan eta harrerarako deia egiten digu.

Otoitz egin nahi duenak bere barnera bildu behar du, kanpoko gauzei arreta guztia eskainiz bizi garelako, azaleko ekintza, arrazoiketa eta iritzietan buru-belarri sartuta. Barneko arretak bakarrik eragingo du Jainkoarekiko topaketa. Jainkoa onartzeak geure barnekotasunaz jabetzera garamatza.

### 3. Jainkoari entzutea

Benetako otoitzaren hasiera, "Jainkoaren aurrean jartzea da", hau da, "hona hemen zure mirabea, Jauna" edo "hemen nauzu, Jauna" esatea, prestasuna eta bihotz-zabaltasuna erakutsiz.

Sarritan, gure otoitza eskaera, beharrian eta interesez beteta dago, Jainkoari geure izatean sartzen utzi gabe. Geure hitzak entzuten ditugu eta ez dugu entzuten Jainkoaren ahots isila.

<sup>1</sup> "Katekesirako Iruña, Tuter, Bilbao, Donostia eta Gasteizko Ordezkaritza eta Idazkaritzak. Katekista garenontzat. Bilbao 2004, 41-44 or.

Jainkoarekiko topaketak bere Hitzaren entzute zintzora zabaltzen du gure bihotza. Berari begira jartzen gaitu. Jainkoak gure bizitzako egoerak Bibliatik eta, batez ere, ebanjelioetatik, Jesusen bizitzatik, argituz hitz egiten digu.

Oinarrizkoa da otoitzean galdetzea: "Jauna, zer egingo zenuke Zuk egoera honetan?", "nola argituko duzu nire bizitza?" Jainkoari zintzotasunez eta bihotz zabalaz entzuteko prest azalduz, Haren erantzuna bizitasunez bilatuz.

#### **4. Bizitzatik otoitz egin**

Gure bizitzako atal guztiek eragin dezakete otoitza. Poztasunak, ardurak, zorionak edo zoritxarrak, arrakastak edo beldurrak. Jainkoari zuzentzen gatzaizkio une horretan bizi dugunetik, eta horrek egiten du, hain zuzen ere, biziago gure otoitza.

Bizitzatik otoitz egiteak gure eguneroko bizitza "otoitz gai" egitea esan nahi du. Eta otoitz bat dago egoera eta une bakoitzerako. Otoitz egiten ikasten dugu, Jainkoari nola gauden adierazteko gai garenean, geure bizitzaren berri ematen diogunean, baita gauzak gaizki doazenean ere.

Benetako otoitza bizitzatik sortzen da eta bizitzara bueltatzen da. Jainkoarekiko topaketa zintzoak "behar-beharrezkoan" kokatzen du gure bizitza, norberekeria eta gauzak pilatzetik aldentuz. Aitaren maitasunera bihurtzean, bertan aurkitzen dugu anai-arrebak onartu, maitatu eta zerbitzeko arrazoi nagusia.

#### **5. Otoitz egiteko jarrera eta erak**

Otoitza bizitzatik bertatik sortzen denean eta egunean-egunean bizi izandakoaz osaturik dagoenean, nahikoa dugu bere aurrean geure izateaz aurkeztea Jainkoarengana zuzentzeko. Gure bizitzako osagarri guztiak, erreguzko, esker oneko, gorespenezko, kexuzko edo barkamena eskatzeko otoitzaren abiapuntu izan daitezke.

Beharrak Jainkoari zuzendutako eskaera edo erregua eragiten du. Ez dugu bilatzen gure arazoaren konponketan ordezkaterik. Bere grazia, ontasun eta egiatik jardun eta bizitzea eskatzen digu. Gure otoitzean, Jainkoari konfiantza beteaz "egiten uzten" diogu, bere eskuetan dago-eta gure salbamena. Batzuetan, egoera larritik, otoitza kexu bihurtzen da eta premiazko erregu bezala, ezinegonez onartzen eta adierazten du Jainkoaren ahalmen eta ontasunaganako konfiantza.

Bitartekotza, besteen alde egiten dugun eskaera-otoitza da, euren beharrez jabetu eta bizi duten egoeraren aurrean solidario izanez. Besteen alde, euren arazo eta beharrez aurrean, otoitz egiteak ez du ezertarako balio, egoera hori konpontzeko ezer egiten ez badugu. Bitartekotza, interpelazio bihurtzen da guretzat.

Jainkoaren ontasunaren esperientziak, esker oneko otoitzean adierazten dugun onespina pizten du guregan. Berarenganako mirespena gorespenezko otoitzean adierazten da.

Gure ahultasun, hutsegite eta leialtasunik eza, Jainkoaren guztionganako maitasun eta errukian uste osoa izateaz batera, zintzotasunez eta apaltasunez barkamena eskatzean adierazten da.

## 6. Otoitzaren hizkuntza

Otoitza, Jainkoarekiko adiskidetasunezko topaketa bezala, ez da solas hutsa, geure bihotza zabaltzea baizik. Baina bihotzean dagoen guztia gure ezpainetatik igarotzen da. Eta esan, xuxurlatu edo abestutako hitzen bitartez komunikatzen gara Jainkoarekin, gorputz eta arimaz.

Otoitzaren hizkuntza zuzena eta erraza izango da, konfiantzazko lagun batekin erabiltzen duguna. Ez da hitz edo adierazpen zail eta ponposorik bilatu behar, naturala eta berezkoa izango da, benetako maitasunaren freskotasun eta errespetua erakusten duena.

Askotan formula eta otoitzak erabiltzen ditugu. Egokia da honelakoez baliatzea Jainkoari hitz egiteko, batez ere talde edo elkartean otoitz egin ezker. Guzti hauen artean, Jesusek berak ikasleei irakatsi zien Gure Aita nabarmentzen da. Baina geure otoitza egin behar dugu; formula horien ostean neuk egon behar dut, nire erregu edo gorespenarekin, eskerron edo kexuarekin. Hitz horiek neureganatu egin behar ditut, nire bihotza Jainkoarengana goratu nahi badut.

Batzuetan otoitz egiteko hitzik aurkitzen ez dutenei lagundu behar diegu, egoerari edo bizi dugun uneari eta Jainkoaren aurrean geuregan bizitu nahi dugun jarrerari moldatutako adierazpen errazak geurekin batera errepikaraziz.

## 7. Keinu eta sinboloak

Garrantzitsua da barne-bilketa eragingo duen jarrera egokia bilatzea, otoitz egiteko. Otoitzaldia laburra bada, zutunik egin daiteke. Otoitza luzea bada, jesarrita egotea komeni da, bizkarra zuzen dugularik, arnasketaren erritmoa zainduz, lasaitasun eta bakea bilatzeko. Otoitz pertsonala egiten dugunean, Jainkoaren gurtzaren adierazpen bezala, belaunikatuta edo lurrean etzanda egotea lagungarri izan daiteke.

Otoitza taldean egiten bada ere, garrantzitsua da batzuen eta besteen kokapena, zirkuluan edo denak sinboloren bat dagoen toki bakar batera begira.

Aparteko garrantzia dauka begien jarrerak otoitzean. Begiak itxita izateak edo begirada finkoak barne-bilketa eragiten dute. Begirada puntu batera edo irudi batera edo sinbolo batera zuzentzeak, kontzentrazio eta arreta errazten du. Erregu edo gorespina egiteko, egokia da begiak zerurantz jasotzea. Taldean, besteenganako begirada gozoak batasuna sendotzen du baterako otoitzean.

Eskuak bilduta, zabalik edo altxatuta, barne-bilketa, erregua edo gorespina adierazten dute. Taldean elkarri eskuak emateak besteekiko komunioa sendotzen du.

Irudi apal eta ederra, biztutako pazko-zuzi txikia, loreak... besteak beste, otoitzean arreta jartzen laguntzen duten sinboloak dira eta gure Jainkoaren guraria adierazteko zeinu apal izan daitezke.



## **8. Taldea, elkarte**

Kristauok Jesusen izenean, Jesusen ikasle bezala, egiten diogu otoitz Aitari. Gure erregu edo esker oneko, gorespenezko edo barkamena eskatzeko otoitza, gure Kristorekiko komunitatik sortzen da. Horregatik, bere izenean otoitz egitea Eliza den bere gorputzeko kide bezala otoitz egitea da.

Otoitz pertsonala, sekretuan ikusten duen Aitaren aurrean bakarrik gaudenean egiten dugun otoitza ere, Kristoren bitartez heltzen da Berarengana eta bere gorputza osatzen dutenekin batera egindako otoitza da. Horregatik, kristau batek ezin du otoitz egin besteekin anaitasunez bat egiten ez badu. Jesusen izenean egindako otoitzak anai-barkamen eta adiskidetasunera zabaltzea eskatzen du.

Otoitzean Jainkoarekin benetan komunikatzen dena inoiz ez dago besteengandik bananduta. Isolamenduak, besteez ez arduratzeak, lehiakortasuna bizitzako ardatz bihurtzeak, giza samintasunaren aurrean axolagabe azaltzeak, ezinezko egiten dute benetako otoitza. Beraz, otoitzaren froga nagusia maitasuna da. Otoitzik onena, gehiago maitatzera garamatzana da.

**Amaitzeko, ikusi bideo hau eta  
bilatu zure gela sekretua!**



**Bideoa ikusteko,  
klik egin irudian**